

INTERED-EK EGITEN DUEN LANARI LAGUNDU NAHI DIOT:

☐ **9€**
☐ **15€**
☐ **30€**
☐

Beste kopuru bat

ZENBATERO: ☐ HILERO ☐ HIRUHILABETERO ☐ SEHILABETERO
☐ URTERO ☐ BEHIN BAKARRIK

70€ rekin 5 kidez osatutako
Guatemalako familia batek aste
oso baterako oinarritzko elikagaiak
eta edateko ura lor ditzake.

30€ rekin Guatamalan
iristeko zailak diren
zonaldeetako bi emakume
indigena alfabetizatu daitezke.

NOLA:

☐ NIRE BANKU-KONTUAN ZORDUNDU:

ES _____

☐ B. SANTANDER-EN SARTU/TRANSFERENTZIA EGIN:

IBAN ES78-0049-0356-5127-1042-0284

Data(Jabearen sinadura)

NIRE DATUAK:

Izen-abizenak

IFZ

Helbidea.....Zkia.....Pisua.....Atea.....PK.....

Herria..... Probintzia..... Telefono zkia.....

E-mail-a.....

179 kodea

☐ InterRed-en ekimen eta kanpainei buruzko informazioa jaso nahi dut

Jakinarazten dizugu, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudiaren (EB) arabera, zure datuak Harpidedunen fitxategira gehitu ditugula, InterRed Fundazioa jabe duena, IFK G80468564, DBEA-n izena emandakoa eta helburutzat eskatutako informazio orokorra era baimenduan bidalia izan dadin harpidetzak kudeatzea duena. Zure datuak ez zaizkio inori emango, legez alderantzizkoa derrigortu ezean. Informazioa jaso duzula aitortzen duzu eta zure eskubideak InterRed Fundazioa idatziz erabili ditzakezu, c/ Vizconde de Matamala 3, 28028, Madrid, ala rgpd@interred.org. Datu babesari buruzko informazio zehatza: www.interred.org/politica-de-privacidad

Eskaneatu eta bidai lezaguzu orri hau donantes@interred.org helbidera, ala sobre batean sartu, zigilu bat ipini eta bidali ondorengo honetara: c/ Vizconde de Matamala 3 - 28028 Madrid.



InterRed
hezkuntza eraldatzailearen alde

900 83 12 18

www.interred.org



InterRed

BIZITZA GAUZA OSO TXIKI BATEAN SARTZEN DA.

Gure biharko elikagaia eta mantenua diren hazien ekoizpena eta salerostea, funtsezkoa izatetik negozio huts izatera pasatu dira: merkatuaren %80a, soilik 5 multinazionalak daukate monopolizaturik.

ADIBIDEZ, ADM, CARGILL ETA BUNGE-K MUNDUKO ARTOA KONTROLATZEN DUTE ETA BERAIEK ERABAKITZEN DUTE EA ARTO GUZTIAREN ZENBAT IZANGO DEN PERTSONA EDOTA ANIMALIENTZAKO ELIKAGAIA, ZENBAT BIDERATUKO DEN GOZAGARRIAK SORTZERA ETA ZENBAT ETANOLA LORTZERA.

Guzti honi teknologien monopolioa, lurrak behin eta berriro bereganatzea, *dumping* edo galeradun salmenta, ekosistemen suntsipena, etab. gehitzen badizkiogu, nahiz eta Lurrak bere 7.000 miloi biztanleok behar ditugun elikagai guztien bikoitza ekoizten duen, emaitza gosea da.

124 MILOI PERTSONA INGURUK GOSE LARRIA PAIRATZEN DU MUNDUAN. EZ JANARI GABEZIAREN ONDORIOZ, ESKUBIDE GABEZIAREN ONDORIOZ BAIZIK. ELIKADURA OINARRIZKO GIZA ESKUBIDE BAT BAITA.

InteRed-ek bultzatutako “Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpainak, ondasuna eta merkatua erdigunean ezartzen dituen eredu sozioekonomikoa zalantzan jartzen du, norik zer jan dezakeen eta norik jan ere ezin duen erabakitzen duen merkatua, hain zuzen.

InteRed-ek Bizitzaren Zaintzarako Elikadura Burujabetza defendatzen du eta, beste batzuen artean, Guatemalako El Quiché-ko emakume nekazari indigenen proiektuari laguntzen dio. Emakume hauen aldarrikapenak ondorengoak dira: beraiek hazien inguruan daukaten jakintzetatik abiatuz, bertokoa eta ekologikoa diren nekazaritza eta elikadura motak; uraren ustiapena; eta lurraren emankortasunaren mantenua, nahiz eta beraiek lurraren %16,29aren jabe besterik ez diren.

Guatemalan biztanleriaren %53ak desnutrizio kronikoa pairatzen du eta biztanleria indigenaren %45a muturreko pobrezia egoeran bizi da. Gainera, elikagai gutxi dagoenean, emakumeak eta neskatilak izaten dira jan gabe geratzen direnak.

Proiektuen bidez, maia emakumeen banakako eta taldekako burujabetza prozesuak indartzen dira, autonomia ekonomikoa, parte-hartze politikoa eta alfabetatzearen bitartez.

Haziak eman zaizkie emakumeei, beraiek ugaltu ditzaten hala nola beren erosketekiko menpekotasuna txikiagoa izan dadin; hazitokiak eraiki dira material birziklagarri, kosturik gabeko eta jasagarriekin; eta zerba, piperra, txilea, martorria, azalorea, indaba, guiskila, artoa, tomateak,... landatzen dihardute.

BIZITZAREN ZAINTZARAKO ELIKADURA BURUJABETZA HERRIEK, BEREN ELIKADURA BEHARRIZANEI ETA BEHARRIZAN KULTURALEI ERANTZUNEZ, ELIKAGAIEI DAGOZKIEN EKOIZPEN, ZIRKULAZIO ETA KONTSUMO POLITIKEI BURUZ ERABAKITZEKO DAUKATEN ESKUBIDEA DA.



ORAIN, ZURE PLATEREAN ZER DAGOEN IKUSTEN IKASI ETA... ZAINDUZ JAN!

- Bertoko laborantzatik dator ala mundua zeharkatu du zure mahaira iristeko?
- Produktu ekologikoa al da?
- Bertoko hazi emangarrietatik dator ala laborantza transgenikotik?
- Ontziratu gabe erosi zenuen ala plastikotan bildurik eta iraunarazle eta gehigarritz beterik?

ZURE EGUNEROKO ERABAKIEN BITARTEZ, ELIKADURA ESPEKULAZIORAKO SALGAI BEZALA ULERTZEN DUEN EREDUARI LAGUN DIEZAIKEZU EDOTA INGURUGIROAREKIKO JASANGARRIA ETA GENERO ALDETIK ZUZENA DEN KALITATEZKO ELIKADURA BAT BULTZA DEZAKEZU.

BI PROPOSAMEN DAUZKAGU ZURETZAKO:

- AUKERATU ELIKAGAI FRESKOAK, TOKIAN EKOIZTUTAKOAK, BERTOKOAK ETA SASOIKOAK.
- GURE LANARI LAGUNDU DIRU-LAGUNTZA BATEN BIDEZ.

InteRed